

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa lana eskaintzeko helburua duenez, 18 urtetik gorako edozein pertsonarentzat egongo da zuzenduta; hau izango da eskatuko dugun baldintza bakarra. Generoak, erlijioak,... ez du zerikusirik izango pertsona aukeratzeko momentuan.

Bezeroak, hau da, lan bila dabiltzan pertsonak izango dira enpresaren oinarria, izan ere, haiei esker funtzionatuko du. Bezerorik gabe ez ginateke inora helduko. Horregatik, saiatuko gara zerbitzu erraz eta on bat eskaintzen, horrela gurekin kontaktuan jarri diren bezeroak jendeari gomendatuko die gure zerbitzua. Hori gertatuz gero, jendea gure zerbitzua ezagutzen hasiko da eta zabaldu egingo ginateke.

Bezeroekin harremanetan jarriko garenak beti gu izango gara, inoiz ez kontratua eman dion enpresak; adibidez, arazoren bat badute, guri komunikatuko digute, izan ere gu gara pertsonaren kargu egongo garenak. Honetarako baldintza bakarra kontratu finkorik ez izatea izango da, izan ere, langilea hartu duen enpresak pertsona hori lanean finkatzen badu, haien kargu geratuko da. Horrez gain, pertsona horrekin gustura badago eta denbora gehiagoz lan egitea nahi badu, guri komunikatuko beharko digute ezer baino lehen, baita kontratu finko bat egin nahi badiote.



Bezeroak gurekin jarriko dira harremanetan lan baten bila badabilta, aldiz, enpresei guk deituko diegu gure zerbitzua eskaintzeko eta, interesa badute gurekin kontratu bat edukiko dute eta langile bat behar duten bakoitzean, guri esango digute zein esparrutan behar duten langilea eta pertsona batzuen datuak bidaliko dizkiegu, horrela, aproposena hautatzeko aukera izango dute.

Modu honetan langile bat errazago bilatuko lukete, guk langile gehiago ditugulako lan bila; bestela langileak enpresara joan beharko liriateke kurrikuluma aurkeztera eta jende gutxiago joango litzateke, izan ere, askoz errazagoa da guk eskaintzen dugun moduan egitea. Gainera, gure enpresan

pertsona espezializatu kopuru handiagoa dugunez, pertsona gehiago aurkeztuko genizkieke enpresei, eta kalitate hobekoak.